



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



GETXO UDALERRIAN 2023an ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAKO DEIALDIA. DIRULAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO JARDUERETARAKO LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN LAGUNTZEN DEIALDIKOAK DIRA (2023-05-24).

Helburua	Lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak ematea, bai eta iraupen jakinekoak ere, artistak eta ikuskizun publikoetako teknikariak eta laguntzaileak kontratatzeke, eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabetuak kontratatzeke.
Dirulaguntza jaso dezaketen kontratuak:	Laguntza horiek jaso ditzaketen kontratuak dira 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era hasitakoak. Kontratuak mugagabeak izango dira, eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahalko dira, gutxienez lanaldiaren %50ean. * Ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten, teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratuak ere lagunduko dira diruz (kontratu horiek hiru hilekoak izango dira gutxienez, eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahalko dira, betiere baldin eta gutxienez lanaldiaren %50ekoak badira).
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	<ul style="list-style-type: none"> • Gehienez ere 8.000 euroko laguntza emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko. • Gehienez ere 10.000 euroko laguntza emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko, honako kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen direnean: DSBEren onuradun, titular edo jasotzaileak; 35 urtetik beherakoak; iraupen luzeko langabeak; edo 55 urtetik gorako pertsonak. • Bestalde, % 50eko baino gehiagoko lanaldiko kontratu mugagabeen kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko zenbatekoa) lan egindako denboraren proportzionala izango da. <p>* Ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten, teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gehienez ere 6.000 euroko laguntza emango da lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, sei hileko edo gehiagoko kontratu bakoitzeko (3.000 euro hiru hileko kontratuatarako). • Gehienez ere 7.500 euroko laguntza emango da sei hileko edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, honako kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen direnean: DSBEren onuradun, titular edo jasotzaileak; 35 urtetik beherakoak; iraupen luzeko langabeak; edo 55 urtetik gorako pertsonak. • Halaber, % 50eko baino gehiagoko lanaldiko kontratu partzialen kasuan edo hiru eta sei hilabete arteko lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da dirulaguntza, gehienez.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



	<p>Kolektiboetan sartzen ez diren pertsonen kontratazioetan, dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoa, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzaileak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kotizazioa barne.</p> <p>Kolektiboetakoak diren pertsonen kontratazioen kasuan, dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoa, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzaileak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kotizazioa barne.</p> <p>Zenbateko guztiak % 10 gehituko dira emakumeak kontratatzen direnean.</p>
Enpresa edo erakunde onuradunak	Enpresak, saltokiak, profesionalak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak eta fundazioak, betiere lantokia eta jarduera ekonomia Getxon badituzte.
Betekizunak	<ul style="list-style-type: none">• Kontratu beharreko pertsonak Getxon egon beharko dira errolatuta, gutxienez lan-harremana hasi aurreko egunean.• Kontratu beharreko pertsonak langabeak izan behar dira eta Lanbide - Euskal Emplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa alta emanda egon beharko dira, gutxienez kontratua hasi aurreko egunean.• Kontratazioen bitartez, enplegu garbia sortu beharko da diruz lagunduko den kontratua izango duten pertsonak sartu baino sei hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoaren gainean.• Enpresa bakoitzeko bi kontratu diruz lagunduko ahalko dira gehienez.• Kanpoan geratuko dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak:<ul style="list-style-type: none">○ Aurreko deialdietan pertsona horiek kontratatzeagatik enpresa bereberran jadanik laguntza jaso dutenak.○ Enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola dutenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo enpresen administrazio-organoetako kide diren eta sozietatearen izaera juridikoa dutenekin bigarren mailarainoko odolkidetasun- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak: ezkontidea, ondorengoak eta gainerako senideak.
Eskariak aurkezteko epea	2023ko abenduaren 21etik 2024ko otsailaren 5era
Eskariak aurkeztea	<input type="checkbox"/> Telematikoa: www.getxo.eus Administrazio Elektronikoko Bulegoa (AEB. Administrazio Elektronikoko Bulegoa, Nire kudeaketak etxetik -> Nire erregistro telematikoa -> Eskaera egin -> Idazpen-eredua -> Getxoko Udala = Getxoko enplegurako laguntza-eskaera, 2023)
Deialdia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:	<input type="checkbox"/> BAO 242. zbk. , 2023ko abenduaren 20koa <input type="checkbox"/> Ekonomia Sustapena. https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



Helburu bereko laguntzekin bateragarritasuna	Deialdi honetan araututako laguntzak honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu (betiere kostua gainditzen ez bada).
Dirulaguntza emateko modua	Eskariak aurkeztutako hurrenkeran, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago, Getxoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu-kredituaren mugaraino (153.647,40 euro).
Ordaintzeko modua	Bi ordainketa: Eskumena duen organoak ematen dituen laguntzak ebatzi ondoren, % 70. Gainerako % 30a, egiaztatzen denean diruz lagundutako kontratazioko baldintzak betetzen direla.

Laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, 2023ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiari dagokionez (2023ko maiatzaren 24ko EHAA).